

## **USURBIL / Kultur bultzadaren gune gaztea**

Urtebete eta bi hilabete daramatza martxan Usurbilgo Sutegi kultur etxeak. 14 hilabete hauetan hileroko kultur programazio bat edukitzea suposatu du udalerrarentzat. Herritar zein udal arduradunentzat berrikuntza izan da. Lehen epealdi honen ostean, beren balorazioa egin dute batzuek eta besteek.

Kultur ekipamenduan 105 bat ekintza egin dituzte orain arte, horietatik 25 inguru Udalak berak antolatutakoak. Ibon Beristain Usurbilgo Kultura zinegotzia da. Berak azaldu duenez, "ekitaldien programazio bat egitea suposatu du guretzat Sutegi edukitzea eta oraindik ikasten ari garela esan daiteke, neurria hartzen". "Hala ere -jarraitu du-, orain arte dena nahiko ondo uztartu dugula uste dugu eta jendeak ekitaldiak gustura hartu dituela ikusi dugu".

Kultur etxea baino, "auditorio bat duen udal liburutegi" bezala izendatzen du Beristainek Sutegi: "Guk ulertzen dugun moduan, kultur etxe batek beste ekipamendu batzuk ere eduki beharko lituzke, besteak beste, herriko taldeak biltzeko gelak".

### **Harrera ona. Antzerkiaren arrakasta**

Ekitaldiei dagokienez, antzerkiak herrian arrakasta handia duela adierazi zuen Kultura saileko zinegotziak: "Ez ditugu baliabide izugarriak, baina batzuetan sorpresa ere hartu dugu emanaldi batzuek izan duten erantzunarekin. Inguruko herrietako kultura arduradunek esan digutenez, kopuru onetan gabilta". Denborarekin programazioa hobetuko dutela aurreratu zuen Ibon Beristainek: "157 eserleku ditu auditorioak eta formatu txikiko gauzetarako ondo dago, oso giro polita sortzen da. Hori bai, Benito Lertxundi bat ekartzeko, adibidez, mugatuta gaude". Usurbilen hitzaldiak antolatzeko aukera ere eman die Sutegik. "Beste aukera bat erakusketena izan da. Sutegik duen aretoan Usurbilgo artisten lanak jartzeko aukera izan dugu hauek ezagutzera emateko", azaldu du Kulturako arduradunak. Aurrerantzean programazioan zinea sartzen hasi nahi dute. Batez ere haurrentzako proiektuak izango lirarteke, igandetan.

### **Kultur Taldeak. Mugimendu herritarra**

Esan bezala, 25 bat ekitaldi besterik ez dira izan Udalak berak antolatu dituenak. Gainontzekoak, herriko talde ezberdinek bultzatutako emanaldi eta saioak izan dira, Udalaren laguntzarekin. Izan ere, lehen zailtasunak baziren ere, auditorioak askotariko aukerak eman dizkie kultura inguruan mugitzen diren taldeei.

Herritarrak izan dira baita 14 hilabete hauetan kultur etxeko protagonistak. Txaro Barbero kultur etxearen parean zebilen atzo. Hau da Sutegiri buruz duen iri-tzia: "Nik liburutegia erabiltzen dut gehienbat eta oso kontentu nago ekipamenduarekin. Ez naiz auditorioan izan antzerki edo kon-tzerturen batean, baina horrelako ekitaldiak egoteak herriari mugimendua ematen diola uste dut".

Asier Portularrume kultur etxeko noizbehinkako erabiltzailea da: "Puntualki antolatzen dituzten kontzertu edo antzezlanetara joaten naiz erakargarriak iruditzen zaizkidanean".

Sutegik martxan daraman denborari errepasso bat emanez, balorazio ona egiten du Usurbilgo bizilagun honek: "Auditorioak mugimendua eman dio herriari. Ekitaldiekin beti martxan dagoen gune bat da eta hori eskertu egiten dugu herritarrok. Gabezia bat aipatzearen, zenbait gauzetarako espazioa falta dela esango nuke. Kontzertu pixka bat inportanteak direnean, adibidez, sarrerarik gabe geratu zaitezke erraz".

"Nik ez dut kultur etxea erabiltzen denetarako denborarik ez dudalako", adierazi zuen Marixabel Borda bizilagunak. "Dena den, esku programa ikusten dut eta herriari mesede handia egiten diola uste dut", gaineratu zuen.